Marrazoak

Esaten da tigre-marrazoa bere hortz indartsu zorrotzekin irents dezakeen edozer jateko gai dela: janaria, matrikulen plakak eta pintura-potoak. Bere goitizena "zakarrontzi-marrazoa" da.

Pertsona gehienei baraila eta hortzak etortzen zaizkie burura marrazoetan pentsatzen dutenean, eta marrazo askok badituzte baraila indartsuak eta hortz zorrotzen lerroak. Zenbait marrazok altzairuzko pieza lodi bat zeharkatzeko bezain gogor kosk egin dezakete, eta inoiz ez zaizkie hortz berriak faltatzen. Marrazo baten baraila hortzen hogei lerrorekin betea dago, bat bestearen atzetik. Marrazo batek hortz bat puskatu edo galtzen duenean, beste batek aurrera egiten du hori ordezkatzeko. Zenbait marrazok hortzak banaka-banaka ordezkatzen ditu; beste batzuek, aldiz, lerro oso bat ordezkatzen dute aldi berean.

Marrazoek elikadurarako zer ehizatzen duten aldatu egiten da, non eta nola bizi diren. Batzuek, beren aho handiekin, flotatzen ari diren animalia eta landare txikiak biltzen dituzte. Beste batzuk beren hortz zorrotz puntazorrotzekin arrainak harrapa ditzaketen igerilari azkarrak dira. Eta beste batzuek kostaldean fokak, izurdeak eta itsastxoriak bilatzen dituzte. Asko hondoan bizi dira, eta ozeanoko karramarro eta itsaskiez elikatzen dira. Marrazo guztiek beste animalia batzuk jaten dituzte.

Marrazoak hain ehiztari onak izatearen arrazoia

Marrazo batek zentzumen bikainak ditu eta horrek munduko ehiztari onenetariko bat bihurtzen du.

Egin klik zentzumen bakoitzean gehiago jakiteko.



MARRAZO MOTAK

450 marrazo-mota inguru ezagutzen dira, eta zientzialariek pentsatzen dute oraindik ere aurkitu ez diren beste espezie batzuk badaudela. Jarraian, 3 marrazo motari buruzko informazioa ematen zaizu.

Marrazo-balea

Hori da itsasoko marrazo motarik eta arrainik handiena. 18 metro luze izatera eta 20 tona pisatzera irits daiteke. Hori trailer izugarri baten tamaina da! Pisu hori izan arren, marrazo-baleak ez die gizakiei erasotzen. Marrazo-baleak izen hori du, bale batzuk bezala iragazlea delako. Horrek esan nahi du ahoa bi metro bitarte zabaltzen duela eta planktona eta arrain txikiak iragazten dituela itsasoko milaka tona uren artean.

Mailu-arraina

Mailu-arraina da itxurarik arraroena duen itsasoko arrainetariko bat. Haren mutur zabal, zapalak mailu baten buruaren itxura du benetan. Haren begi, sudur-zulo eta elektroerrezeptoreak dira “mailu” horren izkinak. Marrazoak burua aurrera eta atzera kulunkatuz bere inguruaren ikuspegi zabala lortzen du. Mailu-arrainen 9 mota daude eta luzeran 1 eta 6 metro bitarte izatera irits daitezke. Mailu-arrain gehienek bakarrik igeri egiten dute eta arrainez elikatzen dira, bai eta beste marrazo batzuez ere.

Marrazo zuria

Marrazo zuria da ondoen ezagutzen diren marrazo-espezietariko bat. 50 hortz ditu, beste edozein marrazorenak baino hortz handiagoak: 6 zentimetro luze! Hortz horiek itsas lehoiak eta fokak jateko erabiltzen ditu gehienbat. Marrazo zuria da hirugarren marrazo-espezierik handiena, 6 metro inguruko luzera baitute. Gorputz berokoak dira, baina hori ez da, inondik ere, odol berokoa izatea. Horrek esan nahi du bere gorputzeko tenperatura inguruko urarena baino beroagoa dela; eta horrek energia handiagoa ematen dio azkarrago igeri egiteko gai izateko.

1.
Adierazi pasartearen hasierak marrazoen hortzei buruz esaten dituen bi gauza.

1 **1.**

1 **2.**

2.
Artikuluak dioenaren arabera, zein dira marrazoek jaten dituzten hiru animalia-motak?

1

3.
Zergatik deitzen zaio tigre-marrazoari “zakarrontzi-marrazoa”?

(A) Bere hortz zorrotzek zakarrontzi bat zeharka dezaketelako.

(B) Zakarrontzi bat bezala usaintzen dutelako.

(C) Zakarrontzi batean aurki ditzakezun gauzak jaten dituelako.

(D) Zakarrontzi baten forma duelako.

4.
Zein da marrazoak bere harrapakinak aurkitzeko erabiltzen duen lehen zentzumena?

(A) Entzumena.

(B) Ikusmena.

(C) Dastamena.

(D) Usaimena.

5.
Zergatik dirudi marrazoen begiek ilunpetan distiratzen dutela?

1

6.
Zerbait jan baino lehen zergatik marrazoek batzuetan “frogako hozkada” egiten diote?

(A) Beren hortzak kaltetuko ez dituztela ziurtatzeko.

(B) Beren harrapakina jan nahi duten jakiteko.

(C) Beren harrapakinari ihes egiten ez uzteko.

(D) Behar bezainbesteko gosea duten jakiteko.

7.
Marrazoen ukimena eta entzumena zertan dira desberdinak gizakien ukimenetik eta entzumenetik? Azaldu desberdintasun bat zentzumen bakoitzerako.

Ukimena.

1

Entzumena.

1

8.
Marrazo baten harrapakina harkaitz baten atzean ezkutatua dago. Marrazoak zein zentzumen erabil dezake hura aurkitzeko?

(A) Ikusmena.

(B) Urruneko ukimena.

(C) Entzumena.

(D) Elektroerrezepzioa.

9.
Nola laguntzen du koadroen diagramak marrazoak zergatik diren hain ehiztari onak azaltzen?

(A) Marrazoaren gorputzeko zatien izenak aipatzen ditu.

(B) Marrazoen zentzumenek zer egin dezaketen adierazten du.

(C) Marrazo batek nola ikusten duen azaltzen du.

(D) Marrazoak zein handiak izan daitezkeen erakusten du.

10.
Gose den marrazo bat fokak ehizatzen ari da. Zein ordenatan erabiliko ditu dastamena, ikusmena eta usaimena?
Adierazi zergatik erabiliko dituen zentzumen horiek ordena horretan, testuko informazioa erabiliz.

2

11.
Artikuluak esaten du zenbait marrazok “beren aho izugarriekin flotatzen ari diren animalia txikiak biltzen dituzte”.
Zein marrazok ehizatzen ditu elikagaiak modu horretan?

(A) Tigre-marrazoa.

(B) Marrazo-balea.

(C) Mailu-arraina.

(D) Marrazo zuria.

12.
Beheko taulak artikuluko marrazo-motei buruzko informazioa antolatzen du. Bete hutsuneak, taula osatzeko.

3

Marrazo-mota	Luzera	Elikagaiak	Ezaugarri berezia
Marrazo-balea			Marrazorik handiena
Mailu-arraina	1-6 metro		
	6 metro	Itsas lehoiak eta fokak	

Original ID	Sharks
Title	Sharks
Answer code	
Images	